

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### AMURRIOKO UDALA

#### Behin betiko onespena ematea ondasun higiezinaren gaineko zergaren 2024 zenbait errolda fiskali

Nik, José Ramón Molinuevo Lañak, Amurrioko Udaleko (Araba) alkateak,  
hau jakinarazten dut:

Tokiko Gobernu Batzarraren 2024ko ekainaren 13ko erabakiaren bidez hartutako eta ALHAO-ren 2024ko uztailaren 3ko 74. zenbakian argitaratutako erabakien aurkako erreklamazioak aurkezteko epea igarota, ez dela erreklamaziorik aurkeztu, eta erabaki horiek behin betiko bihurtu direla. Hori guztia argitara ematen da, Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorraren 98.3 artikuluan xedatutako ondorioetarako. Artikulu hori 2024ko ekitaldiari dagozkion honako zerga errolda hauen behin-behineko onspenari buruzkoa da:

- Hiri ondasun higiezinaren gaineko zerga (2024/S03.02.01.03/1 espedientea).
- Landa ondasun higiezinaren gaineko zerga (2024/S03.02.01.03/3 espedientea).
- Ezaugarri berezietako ondasun higiezinaren gaineko zerga (2024/S03.02.01.03/2 espedientea).

2024ko azaroaren 1etik abenduaren 31ra bitarteko egun baliodunetan, biak barne, ordaindu ahal izango dira, borondatezko epean, gorago aipatutako errolden ordainagiriak.

Ordainagiriak helbideratuta ez dituzten zergadunek udaletxeko kutxazain automatikoan eta euskal administrazioaren ordainketa pasabidean ordaindu ahal izango dituzte zerga zorrak. Horretarako, udalaren web orrira jo beharko dute (<http://amurrio.eus/es>), "Nire ordainketa" aukerara.

Epe hori igarotakoan, ordaindu gabeko kuotak kobratzeko premiamenduko betearazte bide administratiboari emango zaio hasiera, eta kobratu beharrekoari ehuneko 20ra arteko errekar-gua aplikatuko zaio, hala xedatzen baitu indarrean dagoen Zergabilketarako Araudi Orokorrak; errekar-gu hori eta luzapenarena bateragarriak dira.

Guztiak jakin dezaten argitaratzen da.

Amurrio, 2024ko uztailaren 26a

Alkatea  
JOSÉ RAMÓN MOLINUEVO LAÑA